

Plazentziako «Iriyarena» Arozamena eta Garbizu donostiarrak eza-gutarazi diguten baino bertso gehiagokin, eta Plazentziako zaharren artean nork ez dakizki hamar bertsoak kantatzen? Meza nagusiko «Kyrie, *eléison*» baino hobeto bai noski. Bai horixe! Gainera, soraluzearrak beren gatz bereziarekin egosia dure «Iriyarena» kanta. Honetatik, 7garren bertsoa beren gisara aldatua. Plazentziarra inper-nuan sartzen delarik, hara zelan heltzen dion kantari:

*Toki hartako berotasunez
bizi-ro egarriturik
galdetzen zuen:
«Ez ahal da hemen
inun sagardutegirik?
Neri berrido tokatzen bazait
zeruetara sartzerik
iriarena joagatikan
ez det egingo saltorik.»*

J. S. M.

* * *

EUSKAL LITERATURA 72.—Izenburu hau daraman liburuak, 184. orrialdean, honela dio: «Obra hau 1971.go Agora sarira presentatu izan zen. Juradoak (Roque Arambarri, Antonio Arrue, José Antonio Loidi, Juan San Martín, Antonio Zavala) saria «desierto» deklaratu zuen.»

Auntza hil, ezta gero auntzaren gaberdiko eztula. Baina egile «kupidagarri» horrek jarri gabe utzi duena, zera izan da: Egile zintzoak, diru beharra zuelako, juraduko bati eskatu ziola saria berari ematen ahalegintzeko, eta hala ere, estudiante gizajoaren eskari hau aintzat hartu gabe, saria «desierto» deklaratu zuten. Halakorik!

J. S. M.

* * *

«*LAMINERO*» *ETA LAMINA GOZO-ZALEAK*.—Lehen aldiz Erronkarin konturatu nintzen gozo-zaleeri «laminero» eta «laminera» deitzen ziotela, gizonetza eta emakumetza «o» eta «a»ekin